

Jose Luis Lizundia Askondo jauna, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta bere Onomastika Batzordeko Idazkari denak, ondoko

DIKTAMEN hau ematen du:

Batzorde honek bere azken bilkuran, hain zuzen, joan den Uztailaren 29an, herri horretako Udaletxean egindakoan, beste gai batzuren artean, Udalbatza horren eskariari erantzunaz, ondoko hau erabaki zuela:

Elkargo Akademiko honek prestaturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, bere 499. zenbakiaz datorrena, eta orain arte Administrazioaren bertsio ofizialean: *Oyarzun* deitzen dena, euskal bertsio ofizialean: OIARTZUN dela.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon mila bederatzehun eta laurogetazortzigarreneko Abuztuaren hamaseian.

On ikusia

*E. Knörr*

*Batzordeburua*